

## I. PROZESUAREN PRINTZIOAK

### A) Aukera printzipioa eta beharrizan printzipioa

1. Aukera edo oportunitate printzipioa (principio de oportunidad)

- Aukera-printzipioa → Prozesu zibila.
- Ikuspegi liberala → interes pribatuak gailendu → borondate autonomia.
- Gizabanakoaren interesak edo interes pribatuak gailentzen dira.
- Gatazka sortuta, prozesua ez da gatazka konpontzeko bide bakarra, alderdien esku dauden bideetarikoa bat baizik.

2. Beharrizan-printzipioa (principio de necesidad)

- Beharrizan-printzipioa → Zigor prozesua.
- Interes kolektiboa gailentzen da.
- Gatazka sortuta (delitua) prozesua da egoera konpontzeko era bakarra (*ius puniendi*-aren monopolioa estatuak baitu).

### B) Xedapen printzipioa eta ofizialtasun printzipioa

1. Xedapen printzipioa (principio dispositivo):

- Aukera-printzipiotik eratorritako printzipioa → Prozesu zibila.
- Xedapen printzipioa:
  - Alderdien eskuetan dago bide jurisdikzionalera jotzea.
    - Jarduera jurisdikzionala soilik has daiteke alderdiek hala eskatuta. Alderdien esku dago interes edo eskubideak bide jurisdikzionalera eraman edo horiek baztertzea.
    - Prozesuaren objektua zehaztea demandatzaileari dagokio (uzia), eta eztabaidagaia zehaztea demandatuari (erresistentzia).
    - Jurisdikzio organoak prozesuaren eta epaiaren bidez interes pribatuak asetzeko, aurkeztutako uzi eta erresistentziarekin kongruentea izan behar du.
    - Alderdiek jurisdikzio organoaren jarduna hasteko ahalmena dute, baita horri amaiera emateko ere.
  - Alderdiek prozesuaren objektuaz xedatzea dute (disponer) → alderdien ekarpen printzipioa.
    - Alderdiek erabakitzen dute zein egitate aurkeztu eta zein frogabide erabiliko dituzten egitate horiek frogatzeko.

- Alderdiek zehazten dute prozesuaren objektua. Beren uziak gatazka osoari buruzkoak izan daitezke edo horren zati bati buruzkoak.

## 2. Ofizialtasun printzipioa (principio de oficialidad):

- Beharrizan-printzipiotik eratorritako printzipioa → zigor prozesua.
- Ofizialtasun printzipioa vs xedapen printzipioa:
  - Prozesuaren hasiera ez dago alderdien borondatearen menpe, baizik eta jurisdikzio organoek ofizioz hasiko dute.
  - Alderdiek ezin dute prozesuaren objektuaz xedatu.
- Ñabardurak: Zigor prozesua = instrukzioa + ahozko epaiketa
  - Instrukzioa: Instrukzio Epaitegiak prozesuari hasiera ematen dio biktimaren iritzia edozein izanda ere. Egitateen eta egon daitezkeen erantzukizunen ikerketa ofizioz hasten da.
  - Ahozko epaiketa: Prozesua hasteko beharrezkoa da epailea ez den alderdi batek akusazioa egitea; funtzio hori Fiskaltzari dagokio (zigor akzioa egikaritzen du). Alderdien borondateak ez du prozesuan eraginik.

## **C) Zuzendaritza-ahalmen prozesalak (facultades procesales de dirección): oinarri prozesalen kontrola eta bultzada prozesala**

Prozesuaren zuzendaritzak bi ahalmen uztartzen ditu: a) egintza prozesalen legezotasuna kontrolatu eta b) prozesuak faserik fase igarotzeko beharrezkoa den bultzada eman.

1. Oinarri prozesalen kontrola (oinarri eta baldintza prozesalak betetzen diren kontrolatu):
  - Prozesua baliozko eran eratuta egoteko eta auziaren mamia buruz erabakitzen duen epaiaren bitartez amaitu ahal izateko, prozesuaren hasieran egon behar diren elementuen kontrola egiten da (eskumena, alderdien gaitasuna...). Aurrebaldintza horiek betetzen ez badira, jardundakoa deuseza izango da.
  - Haien kontrola jurisdikzio-organoari dagokio (PZL 415 art.). Baina, horrek ez du esan nahi alderdiek ere aurrebaldintza prozesalei buruzko alegazioak egiteko aukerarik ez dutenik.
  - Epaileak demandaren onarpenerako aurrebaldintza prozesalak aztertuko ditu, ez uziaren mamia.

## 2. Bultzada prozesala (*impulso procesal*)

- Nori dagokio prozesua aurrera eramatea? Nori dagokio izapideei bultzada ematea? Aukera posibleak: Ofiziozko bultzada / alderdien bultzada.
  - o Prozesu zibilean, xedapen printzipioaren ondorioz, alderdiei dagokie prozesua hastea, errekurtsua aurkeztea edota betearazpena eskatzea.
  - o Zigor prozesuan, aldiz, prozesuaren hasiera zein epaiaren betearazpena ofizioz egiten da.
- Gaur egungo egoera: *Ofiziozko bultzada* (PZL 179.1 art.). Jurisdikzio-organoak berak prozesua aurrera eramateko beharrezko ebazpenak ofizioz emango ditu (justizia administrazioko letratuaren bidez), alderdien borondatea edozein izanda.

### **D) Zuzendaritza-ahalmen materialak (facultades materiales de dirección): alderdien ekarpena eta ikerketa ofiziala**

Zein alderdiri dagokio alegatzea eta frogatzea (egitateak eta frogabideak)? Zein ondorio dakar alegatutako egitateak ez frogatzeak?

#### 1. Prozesu zibilean: **Alderdien ekarpen-printzipioa** (principio de aportación de parte)

Prozesu zibila alderdien ekarpen-printzipioak eraentzen du. Alderdiak dira alegazioak egiten dituztenak eta horien oinarriak frogatu behar dituztenak. Gainera, alderdiak dira frogabide konkretuen burutzea eta froga-fasearen hasiera eskatzen dutenak.

- ❖ Egitateen ekarpena → alderdiei dagokie prozesuaren objektua eta eztabaidagaia zehaztea.
  - o *Demandatzailea*: uzia oinarritzen duten egitateak frogatu beharko ditu. “*Causa petendi*” deritzona frogatu behar du, bere uziaren arrazoa edo oinarria.
  - o *Demandatua*: demandan aurkeztutako egitateak uka ditzake eta uziari eraginkortasuna kendu ahal dioten egitateak frogatzen saiatu beharko da. Demandatuak aurkeztutako egitateek ez dute objektua zehaztuko, baina, eztabaidagaia zabaltzeko gai izango dira.
  - o *Epaileak* ezingo du egitaterik prozesura ekarri.
- *Errekonbentzioaren* kasuan: alderdi bakoitzak bere uzia oinarritzen duten egitateak frogatu beharko ditu.
- Alderdiek egitate eztabaidagarriak baino ez dituzte frogatu beharko. Alderdiek onartutako egitateak epaileak baliozkotzat hartuko ditu.
- ❖ Aplikatu beharreko zuzenbidea:
  - *lura novit curia* = epaileak zuzenbidea ezagutzen du, eta arau egokia aplikatu behar du kasu zehatzean.

- Demanda eta demandaren erantzunak oinarri juridikoak jaso behar dituzte. Baina, auzitegiak, egindako eskaerari helduz, auzi horri aplikagarri zaizkion arauak kontuan izango ditu, nahiz eta alderdiek era egokian ez alegatu (PZL 218.1 II art.).

❖ **Frogaren ekarpena**

- Alderdiek frogak aurkeztuko dituzte eta haiek aurkeztutakoak erabiliko dira soilik (auzitegiak ez du froga-ahalmenik).
- Ondorioak: Alegatutako egitateak nahiko frogatzen ez dituen alderdiari bere uzia ezetsiko zaio. Berak alegatutako egitateak ez dira kontuan hartuko epaia emateko.

2. Zigor prozesuan: **Ikerketa ofizialaren printzipioa** (principio de investigación oficial)

- Beharrizan-printzipiotik eratorritako printzipioa.
- Errugabetasun-presuntzioaren printzipioaren aplikazioa (EK 24.2 art.) → Akusatua errugabetasun-presuntziorako eskubideak babesten du, eta errugabetzat jotzen da kontrakoa egiaztatu arte. Horrela, alderdi akusatzaileari dagokio alegazioak egitea eta akusatuaren erruduntasuna nahiko frogatzea.
- Horretarako Fiskaltza sortzen da; zigor akzioa egikaritzeko funtzioa dagokiolarik. Alegazioak egiten ditu eta errugabetasun-presuntzioa bertan behera uzteko frogak burutzea eskatuko du. Horrek ez du gainontzeko alderdi akusatzaileen jarduera frogagarria baztertzen.
- Zehaztapenak:
  - Instrukzioa: Instrukzioko epaileak mugarik gabe ikertzen du. Ez dago alderdiek ezta Ministerio Fiskalak eskatutako eginbideengatik lotetsita.
  - Ahozko epaiketa: Prozesuaren objektua alderdi akusatzaileek mugatzen dute eta horiei dagokie froga-proposamena ere (PKL 728 art.: “Alderdiek proposatutako froga-eginbideak baino ez dira burutuko...”). Salbuespena: PKL 729.2 art.: “...alderdiek proposatu ez dituzten froga-eginbideak, baldin eta auzitegiak beharrezkotzat hartzen baditu, kalifikazio-idazkien objektua izan diren edozein egitate egiaztatzeko”.

## E) Frogaren balorazio sistemak

Alegatutako egitateen ziurtasuna ezartzeko frogabideek duten eragingarritasuna neurtzeko sistemak. Bi sistema existitzen dira:

### 1. Legezko balorazio sistema (valoración legal)

- Legeak berak froga bakoitzaren balioa zehazten du, epailearen kontzientziak garrantzirik izan gabe.

- Adib. dokumentu frogak (dokumentu publikoak eta kaltetzen dituen alderdiak aurkaratu gabeko dokumentu pribatuak) → egiazkotzat hartuko dira.
- Autore batzuen ustez, legezko frogak segurtasun juridikoa eta alderdientzako bermeak dakartzate, frogabide zehatz bat aurkeztu baino lehen alderdiak horien ondorioak ezagutzen baitituzte.

## 2. Balorazio askeko sistema (valoración libre)

- Epaileak bere kontzientziaren arabera erabakitzen du egitateak egiazkoak diren ala ez, nahiko frogatu diren ala ez. Epailea ez dago lotetsita legezko irizpideei, ezta alderdien iritziei ere.
- Frogak baloratzen ditu *bere kontzientziaren arabera, esperientziaren ereduak* kontuan izanik (*según su sana crítica; conforme a las máximas de su experiencia*).
- Frogaren balorazio askeak ez du esan nahi epaileak arbitrariotasunez edo diskrezionalitatez frogak balora ditzakeenik; irizpide logiko eta arrazionaletan oinarritutako balorazioa izango da. Epailearen hausnarketa motibazioaren/arrazoien bitartez epaian azaldu behar da; horrela posible egiten da errekursoak jartzea, eta azken finean jurisdikzioaren jardura fiskalizatzea.

Espainiako froga-balorazio sistema:

- ❖ Prozesu zibila, laborala eta administratiboa: **Frogaren balorazio sistema mistoa**

Arau batzuek frogabide batzuetarako legezko sistema ezartzen dute (alderdiari galdeketa, dokumentu publikoak eta kaltetzen dituen alderdiak aurkaratu gabeko dokumentu pribatuak), eta beste batzuek, aldiz, balorazio askeko sistema (gainontzeko frogabideetarako).

- ❖ Zigor prozesua **frogaren balorazio askearen** printzipioak eraentzen du. PKL 741. art.: “Auzitegiak, epaiketan burututako frogak bere kontzientziaren arabera baloratuz...”. (“El Tribunal, apreciando, según su conciencia las pruebas practicadas en el juicio, las razones expuestas por la acusación y la defensa y lo manifestado por los mismos procesados, dictará sentencia dentro del término fijado en esta Ley”).

Gogoan izan:

- Errugabetasun presuntzioa: epai bidez kontrakoa adierazi arte, akusatua beti da errugabea. Horrez gain, akusatuak ez du bere erruduntasuna frogatu beharrik. Horretarako ahozko fasean burututako baliozko frogen bidez, akusazioak presuntzio hori suntsitu beharko du. *In dubio pro reo* printzipioaren ondorioz, erruduntasunaren gaineko zalantzarik balego absoluzioaren alde erabaki beharko da. Epaileak bere erabakia arrazoitu beharko du geroko errekursoen bidez erabakia fiskalizatu ahal izateko.
- Akusatuak ez du deklaratzeko betebeharrik: bai ordea, zitatzen dutenean agertzeko.
- Frogak alderdiek aurkezten dituzte.

## II. PROZEDURAREN PRINTZIOAK

### A) Kontu orokorrak

*Prozedura:* Prozesuaren kanpoko forma; Zuzenbidea aplikatzeko jurisdikzio-organok eta alderdiek burutzen dituzten egintza multzoaren kanpoko itxura da. Nola burutu behar dira egintza edo jarduerak prozesuan? 2 sistema:

#### 1. Formen askatasuna

- Legeak ez du prozedurari buruzko ezer arautzen → Alderdiek komeni zaien moduan burutuko dituzte jarduerak, aldez aurretik zehazturiko orden edo moduari jarraitu gabe. Epailea ere askea da prozesuari egokitzat hartzen duen izapidetzea emateko.
- Eragozpena: Segurtasun juridikoari kalte egiten zaio, egoera anarkikoa sortuz.

#### 2. Formen legezkotasuna

- Espainiako sistema (PZL 1 eta PKL 1 art.): **Legezkotasun prozesalaren printzipioa.**
- Legeak zehazten du jarraitu beharreko forma edo prozedura uziak jurisdikzio-organoen aurrean aurkezteko. Legeak egintza prozesalak burutzeko eta horiek ondorioak izateko forma eta momentua zehazten ditu. Horrek esan nahi du Zuzenbide Prozesala formala dela.
- Segurtasun juridikoa dakar: alderdiek, auzitegietara jotzean, aldez aurretik badakite justizia lortzeko zelan jardun behar duten izapide bakoitzean.
- Forma ahozkoa edo idatzizkoa izan daiteke.

Bi kontzeptu bereizi behar dira: forma eta formalismoa.

- *Forma:* = bermea. Egintza edo izapide bakoitzerako aldez aurretik zehaztutako modua.
- *Formalismoa:* = gehiegikeria, segurtasun eza. Formaz abusatzea. Konplexutasuna, nahasmena, ziurtasun-falta eta prozesuaren gehiegizko iraupena sortzen ditu.

### B) Ahozkotasun printzipioa eta bertatik eratorritakoak: hurrekotasuna, kontzentrazioa eta publizitatea

Prozedura ahozkotasun/idazkuntza-printzipioak eraentzeak ez du esan nahi prozesuaren egintza guztiak ahozkoak/idatziak izango direnik. Prozesuan

ahozko forma edo idatzizko forma gailentzen dela adierazten du; horregatik esan daiteke printzipio informatzailea dela.

### 1. Ahozkotasun-printzipioa (principio de oralidad)

- Historikoki *idazkuntza-printzipioa* gailendu da (prozesu zibila). Baina denbora pasa ahala ahozkotasun printzipioak gero eta garrantzia gehiago dauka → Zigor prozesuan, lan-prozesuan eta prozesu zibilean (2000ko PZLren bitartez).
- *Oinarri konstituzionala*: “Prozedura ahozkoa izango da nagusiki, batez ere zigor arloan” (EK 120.2 art.). Adierazpen bera errepikatzen da BJLO 229.1 artikuluan.
- *Ahozkotasuna*: Prozesura ahoz ekartzen dena bakarrik kontuan hartu ahal izango du epaileak epaia ematean. Horrek ez du esan nahi egintza zehatz batzuk idatziz egingo ez direnik (demanda, kereila...).
- Ahozko prozedurak ahozko bista bat egin ondoren amaitzen dira; bertan alderdiak eta epailea egongo dira eta frogak burutuko dira (batez ere izaera pertsonaleko frogak: lekuko bidezko frogak, peritu bidezko frogak...). Erabaki behar duen organoak bere ebazpena emango du ahoz burututako ekitaldian oinarrituz; hala eta guztiz ere, ikustaldian burutu den guztia idatziz dokumentatzen da edo grabatzeko edozein baliabideren bitartez (PKL 147 eta 187 art.; BJLO 230 art.).
- Ahozkotasun-printzipioak prozesu zibil eta zigor prozesua eraentzen ditu: Frogak burutzeko ekitaldiak ahozkoak eta kontzentratuak dira.
  - o Zigor prozesua: instrukzioa eta ahozko epaiketa.
  - o Prozesu zibila: demanda + demandaren erantzuna, epaiketa aurreko entzunaldia eta epaiketa.
- *Printzipio eratorriak*: Hurrekotasuna, kontzentrazioa eta publikotasuna.

### 2. Hurrekotasun-printzipioa (principio de intermediación)

- Ahozkotasun-printzipioaren ondorioa da.
- *Hurrekotasuna*: epaileak prozesuaren parte diren alderdiekin kontaktuan egon behar du. Horrez gain, epaia eman behar duen epaileak frogagintzak burutzean presente egon behar du, zuzeneko kontaktua izan behar du, eta ondorioz, bere erabakia zuzenean ikusi eta entzundakoan oinarrituz hartuko du, ez dokumentu frogetan jasotakoan oinarrituz.
- Prozesu zibilean: Prozesu zibilean epaile eta magistratu ponenteek pertsonalki ikusi behar dituzte frogak (PZL 137 eta 289.2 art.): alderdien eta lekukoen deklarazioak; kareoak; perituen azalpenak; lekuak, objektuak eta pertsonak errekonozitzea; hitz, soinu eta irudiak erreproduzitzea... Hurrekotasunaren betebeharra urratzeak → burututako egintzen deuseztasuna edo baliogabetasuna dakar.
- Zigor prozesuan: hurrekotasuna arau orokorra da; epaia ahozko epaiketan burututako frogetan oinarritu behar da (PKL 741 art.).
- *Ondorioa*: Ezin dira jurisdikzio-organoa osatzen duten pertsona fisikoak aldatu. Epaia eman behar duten magistratuak ahozko epaiketan zehar frogaren aurrean egon diren magistratuak izan behar dira (frogabideekin zuzeneko kontaktua izan dutelako).

### 3. **Kontzentrazio-printzipioa** (principio de concentración)

- *Kontzentrazioa*: Egintza guztiak entzunaldi bakarrean burutu behar dira, eta ezinezkoa izanez gero, denboran era kontzentratuan, epaileak alderdien ahozko adierazpenak eta frogaren emaitza memorian argi izateko epaia emateko momentuan.
- Doktrinaren ustez kontzentrazioak prozesuaren iraupena gutxitzen du. Idatzizko prozesuak luzeagoak dira, egintza prozesalen dispertsioarengatik.
- Prozesu zibilean: frogak egintzen batasunez burutzen dira, eta arrazoi zehatzengatik baino ezin da eten (PZL 193 eta 290. art.).
- Zigor prozesuan: ahozko epaiketa jendaurrean, elkarren jarraikako sesioetan burutuko da prozesua amaitu arte, eta esekipena arrazoi zehatzengatik bakarrik izango da posible (PKL 744 eta 746 art.).

### 4. **Publikotasun-printzipioa** (principio de publicidad)

- *Oinarri konstituzionala*: “Jarduera judizialak publikoak izango dira, prozedurari buruzko legeek ezartzen duten salbuespenekin” (EK 120.1 art.). BJLO 232.1 artikulua ere jasotzen du, baina bere II paragrafoak publizitatea mugatzeko eta jarduketa judizialen sekretua erabakitzeko aukera aurreikusten du, ordena publikoa eta eskubide eta askatasunak babesteko helburuarekin, baina betiere, ebazpen motibatuaren bitartez.
- *Publikotasuna*: Zuzenbide-estatuaren oinarriko printzipioa eta nazioarteko hainbat hitzarmenek aurreikusitako funtsezko bermea da (Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunaren 14.4 art.; Giza-Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6 art.).
- *Helburua*: Printzipio horren bitartez gizarteak jarduera jurisdikzionala fiskalizatzea bermatzen da; arbitrariotasunak saihestuz, eta hiritarren Justizia-Administrazioarekiko konfiantza sortuz.
- *Prozesu zibilean*: publikotasuna arau orokorra da; baina, muga daiteke ordena publikoa, segurtasun nazionala, adingabeen interesak, alderdien bizitza pribatua... babesteko (PZL 138. art.).
- Zigor *prozesuan* (PKL 301, 301 bis, 302 eta 680 art.):
  - a) Instrukzioan: Hirugarrenei dagokienez sumarioa sekretua da, baina ez alderdiei dagokienez; alderdiek prozesuaren jarduera guztiak ezagutu eta eginbide guztietan parte har dezakete. Dena dela, hainbat kasutan alderdientzat ere sumarioa sekretupean egon daiteke arrisku larriak ekiditeko ala ikerketaren arrakasta lortzeko beharrezkoa denean.
  - b) Ahozko epaiketa: Arau orokorra publikotasuna da bai alderdientzat, bai gizartearentzat, baina posiblea da hori mugatzea moralitate, ordena publiko edo ofenditu nahiz bere familiarekiko errespetu-arrazoiengatik.



## **C) Idazte/idazkuntza printzipioa eta bertatik eratorritakoak: bitartekotza, barreiatzea, preklusioa eta sekretua**

### **1. Idazkuntza-printzipioa** (principio de escritura)

- Historikoki prozeduraren oinarriko printzipioa. Gaur egun, prozesu administratiboan indarrean dirau; dena den, EK 120.2 art. kontuan hartuta, idazkuntza-printzipioa baztertuta geratu dela esan genezake.
- *Idazkuntza*: Prozesuko subjektuak idatziz komunikatzen dira elkarren artean. Epailleak epaia emateko auziko idazkietan jasotakoan oinarrituko da.

### **2. Bitartekotza-printzipioa** (principio de mediación)

- *Bitartekotza*: Epaille eta frogen arteko zuzeneko kontaktu eza (idazkuntza-printzipioaren ondorioz) → Epailleak idazkietan, aktetan, eta aurkeztutako dokumentuetan oinarrituta emango du epaia (ez epaiketarik ikusitakoan eta entzundakoan). Froga ez da burutzen zuzenean erabakitzen duen epailearen aurrean.
- *Ondorioa*: Posible da froga burutu duen eta epaia eman duen epailea desberdinak izatea.

### **3. Dispertsio/barreiatze-printzipioa** (principio de dispersión)

- Idazkuntza-printzipioak kontzentrazioa oztopatzen du.
- Prozesuan zehar egintza desberdinak burutu behar dira eta alderdiek idazki desberdinak aurkeztu behar dituzte. Hori momentu eta epe desberdinetan egiten da → Prozesua luzatzen du: Prozedura barreiatzen da fase edo denboran zehar.

### **4. Preklusio-printzipioa** (principio de preclusión)

- Aurreko printzipioari lotuta.
- *Preklusioa*: prozeduraren faseetan zehar alderdiek egintzak burutu behar dituzte epe edo una zehatzetan (idazkiak aurkeztu), horrela egin ezean, hori egiteko aukera galtzen da. Adb. demanda aurkezteko epea, demandari erantzuteko epea, froga proposatzeko epea...
- Preklusioa alderdiei aplikatzen zaie, ez jurisdikzio organoari. Alderdiek frogak proposatzeko epean aukera hori erabiltzen ez badute, preklusioaren ondorioz, ezingo dute frogarik proposatu. Haatik, epailleak epaia emateko duen epea errespetatzen ez badu, ez da preklusiorik gertatzen.

### **5. Sekretu-printzipioa** (principio de secreto)

- Idazkuntza-printzipioak jarduera jurisdikzionalaren publizitatea eragozten du. Gizarteak ezin du jarduera jurisdikzionala ezagutu eta fiskalizatu prozedura guztia idazkien bidez burutzen delako (ikus daitekeen egintza bakarra idazkien ematea da).

- *XII-XIX. mendeetan:* Prozesu zibila sekretupean garatzen zen. Publikotasuna XIX. mendearen erdialdean ezartzen da, baina ez du eraginkortasunik 2000ko PZL onartu arte.